PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Ardaitzeko Leizea

Ardaitzeko Leizea

Erroibarren dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Erroibar non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.
Pertsona asko hil ziren bertan.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin
eta Espainia eta Frantzia arteko muga
gurutzatzen saiatu ziren
baina ez zuen ia inork lortu.

Fermín Ezkieta ikerlariak jakin izan zuen
León Goñik gutxienez
San Kristobal Gotorlekutik ihes egin zuten

4 preso lagundu zituela.
León Goñik janaria eman zien
eta Frantziara nola heldu esan zien.
Frankistek 2 preso
Espoz hiritik gertu atxilotu zituzten.
Uste dute beste 2 presoak ere atxilotu zituztela.

1985. urtean espeleologia talde batek
pertsona hauen gorpuzkiak aurkitu zituen.
Espeleologogia haitzuloak esploratzen dituen kirola da.

Talde honek gorpuzkiak Ardaitzko **Leizean***
espeleologia egiten zuenean arukitu zituen.
2 pertsona hauen gorpuzkiak
37 metrotako sakoneran aurkitu zituzten.
Espeleologia taldeak Satorrak du izena.

Leizea*:
Lurrean dagoen
zulo oso sakon bat da.

2012ko abenduan
Satorrak talde
eta Aranzadi Zientzia Elkarteko talde bate
leizean sartu ziren berriz.
Barruan giza arrastoak zeudela baieztatu zuten.

2019ko martxoan
Nafarroako Gobernuko
Desobiratze Programaren barruan
berriz sartu ziren leizera gorpuzkiak berreskuratzeko.
Jakin izan zuten
gorpuzkietako bat
hil zutenean 17 eta 19 urte bitartean zituen
gizon batena zela.

Leizearen beste parte batean 25 urte zituen
beste gizon baten gorpuzkiak aurkitu zituzten.

Badakite frankistek 2 pertsona hauen gorpuzkiak
nahita bota zituztela leizeara.

Esteka honetan Ardaitzeko Leizearen
bideo bat ikus dezakezu.
Klikatu hemen:

https://www.espaciosdememoria.com/eu/memoria-tokia/ardaitzeko-leizea#landmark-video

Hemen Ardaitzeko Leizean aurkitu zituzten
giza arrastoen argazkia ikus dezakezu:

